

2012-10-30ko UDALBATZA OHIZKOA

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko urriaren hogeita hamarrean, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Makuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomas Etxeberria Sarasola, eta Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, eta Olaia Nieto Legarra.

-EAJ/PNV udal-taldekoa: Javier Izaguirre Gomez.

Udaleko idazkariak, Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin jaunak, egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-07-17).- 2012ko uztailaren 17ko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.- Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2012ko 109. zenbakitik 165. zenbakira bitartekoak.

HIRUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2011KO EKITALDIARI DAGOKION KONTU OROKORRA.

Udalbatzak aho batez erabaki du udal honetako 2011ko ekonomia ekitaldiko Aurrekontu Orokorra onartzea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, dagozkion ondorioetarako.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioiko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioiko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian.

LAUGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDALEKO 2012KO AURREKONTUAREN LEHENENGO KREDITU-ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honen 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren 1. kreditu aldaketaren berri eman dute.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioiko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Lehena.- Behin-behineko izaeraz onartzea 1. kreditu aldaketaren espedientea, udal honen 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren barruan. Honela laburbilduko litzateke kapituluka:

- A) Gastuak handitzea: 56.500€
 - 2. kapitulua.- Gastu Arruntak: 16.500€
 - 6. kapitulua.- Inbertsioak: 40.000€
- B) Finantzaketa:
 - 1. kapitulua.- Sarrerak handitzea: 40.000€

2. kapitulua.- Gastuak murriztea: 16.500€

9. kapitulua.- Amortizazioa: - 16.500€

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez, erreklamazioak aurkez ditzaten. Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, behin betiko onartutzat joko da.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Erabaki hau izapide-egintza da.

BOSGARREN GAIA

ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2013. URTERAKO ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETA.-

Alkatetzak jakinarazi du komeni dela udaleko hainbat zerga eta tasa aldatzea, onartutako legezko zerga-aldaketetara egokitzeko, hala badagokio, edota udal-baliabideetara eta udal-zerbitzuen kostuetara egokitzeko. Bertako errealitate ekonomikoa kontuan izateari utzi gabe.

Kontuetako, Ogasuneko eta Aurrekontuko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Idazkari kontu-hartzailearen txosten ekonomiko-finantzarioa ikusi da, eta zerga arloan indarrean dagoen legediaren arabera erabakiko da, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru

Por parte de la Alcaldía se hace saber la conveniencia de proceder a la modificación de diversos Impuestos y Tasas municipales, de cara a adecuarlos a las modificaciones legales tributarias aprobadas, en su caso, y a los recursos municipales y al costo de los servicios municipales. Sin perjuicio de tener en cuenta la realidad económica existente.

Visto el dictamen favorable de la Comisión de Cuentas, Hacienda y Presupuestos en reunión celebrada el día de hoy.

Visto el informe económico-financiero del Secretario-Interventor y de acuerdo con lo dispuesto en la legislación vigente en materia fiscal, en concreto la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de las Haciendas

Arauaren arabera hain zuzen ere.

Beraz, Udalbatzak honakoa erabaki du, aldeko 6 botorekin (Bildu) eta abstentzio batekin (PNV):

1.-Ordenantza orokor bat onartzea, zergak eta bestelako tokiko zuzenbide publikoko diru-sarrerak bildu eta kudeatzeko.

2.-Behin behineko onarpena ematea Irurako Udaleko zerga-ordenantza hauek aldatzeari:

2.a).-Ondasun higiezin gaineke zergari buruzko zerga-ordenantza aldatzea, honela geratuko dena:

A)Karga-tasa:

-%0,20000 orokorrean.

-%0,50000 lurzoru industrialetan edo sektore tertziariorako lurzoruetan dauden ondasun higiezinatarako.

-Landa izaerako ondasun higiezinatarako: %0,60.

B)Bizitegitarako diren ondasun higieziinei ezarritako erretegia, ohiko bizilekua ez izateagatik.

-Zergaren kuota garbiaren %100eko erretegia.

- Ondasun higiezin gaineke zergari buruzko zerga-ordenantza

Locales de Gipuzkoa.

Ante ello, la Corporación acuerda por 6 votos a favor (Bildu) y 1 abstención (PNV), lo siguiente:

1.-Aprobar una Ordenanza General de gestión y Recaudación de los Tributos y otros Ingresos de Derecho Público Local.

2.-Aprobar con carácter provisional la Modificación de las siguientes Ordenanzas Fiscales de este Ayuntamiento de Irura:

2.a).-Modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles que quedará de la siguiente forma:

A)Tipo de Gravamen :

-0,20000 % con carácter general.

-0,50000% para bienes inmuebles situados en suelo industrial o terciario.

-Bienes Inmuebles de Naturaleza Rústica: 0,60 %.

B)Recargo para Bienes Inmuebles de uso residencial por no constituir residencia habitual.

-Recargo del 100% de la cuota líquida del Impuesto.

-Modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto de Bienes

aldatzea eta errekaru hori kudeatzeko arautegia eranstea, errekarurik ezarriko ez zaien etxebizitzak aipatuz.

2.b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergari buruzko zerga-ordenantza aldatzea:

-Finkatutako gutxieneko kuoten igoera-koefiziente bakarra: 2,00

-Udal-mugarren bide publikoak klasifikatzea. Kokapen-indizea: 1.

3.c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari buruzko zerga-ordenantza aldatzea:

-Tarifen taula aldatzea, 1,9ko koefizientea aplikatuz.

4.- Zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduera administratiboak burutzeagatik ezarritako tasaren gaineko zerga-ordenantza aldatzea, aurkeztutako proposamenaren arabera, zaborrak etxez etxe jasotzeagatik ezarritako tasaren tarifei %20ko aldaketa eginez eta baita bestelako aldaketa puntual batzuk eginez ere.

Bigarrena.- Izapidetutako akordioa eta espedienteak

Inmuebles con inclusión de la normativa para la gestión de dicho recargo con inclusión de viviendas no sujetas al recargo.

2.b) Modificación de la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Actividades Económicas:

-Coeficiente único de incremento de las cuotas mínimas fijadas: 2,00

-Clasificación de las vías públicas del término municipal. Índice de situación: 1.

3.c) Modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica:

-Modificación del cuadro de tarifas del mismo, aplicando un coeficiente del 1,9.

4.- Modificación de la Ordenanza Fiscal de la Tasa por Prestación de Servicios Públicos y realización de Actividades Administrativas, de acuerdo con la propuesta presentada, con modificación de un 20% en las tarifas de la tasa de recogida domiciliar de basuras y otras modificaciones puntuales.

Segundo.- Someter el acuerdo y el expediente tramitado

jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Tokiko Ogasunen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak jasotakoa betez, eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta Erakunde honetako iragarki-taulan argitaratzea. Izapidetzerako, arau hauek beteko dira:

a) Espedientea Udaleko Idazkaritza Kontu-hartzaitzan egongo da.

b) Erreklamazioak aztertze eta aurkezteko epea 30 egun baliodunekoa izango da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, eta Udal-bulegoko lanorduetan.

c) Erreklamazioak uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluan jasota datozenek aurkeztu ahal izango dituzte.

d) Erreklamazioak Irurako Udaleko erregistro orokorrean edo Administrazio Prozedura Legearen 38. artikulua jasotako tokietan aurkeztu beharko dira.

e) Erreklamazioa

a información pública, de acuerdo con las normas señaladas en la Norma Foral 11/1989, de 5 de Julio, de las Haciendas Locales de Gipuzkoa y mediante la publicación del Anuncio correspondiente en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y Tablón de Anuncios de esta Entidad. Las normas que regulan este trámite serán las siguientes:

a) Lugar donde se encuentra el expediente: Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento.

b) Plazo para examinar y presentación de reclamaciones: 30 días hábiles desde el día siguiente hábil al de la publicación de este Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en horas hábiles de la Oficina Municipal.

c) Quién puede presentar reclamaciones: Los señalados en el art.17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.

d) Donde se pueden presentar: En el registro General del Ayuntamiento de Irura o en los lugares señalados en el art. 38 de la Ley de Procedimiento Administrativo.

e) Ante quién se presenta la

Udalbatzaren aurrera eraman beharko dute.

Hirugarrena.-
Erreklamaziorik aurkezten ez bada, akordioa behin betiko bihurtuko da, eta testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Akordioa izapidetze jarduera bat da.

reclamación: El Pleno del Ayuntamiento.

Tercero.-En el caso de que no presente ninguna el acuerdo devengará en definitivo y se procederá a la publicación de su texto completo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Este acuerdo es un acto de trámite.

SEIGARREN GAIA

SHARE KALEA 7 ERAIKINEKO LOKALAREN LAGAPENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Honako proposamenaren berri eman da:

“2011ko otsailaren 15eko Osoko Bilkuran, Udalbatzak klausulen orria onartu zuen, Share Kaleko 7.eko udal-partzela besterentzeko eta, ondoren, 6 udal-etxebizitza tasatu eraikitzeko. Klausulen orriko baldintzen artean daude adjudikaziodunaren betebeharrak, eta horien artean honako hau: Udalari ematea beheko solairuko lokala eta sotoko trastelekua. Ematea eskritura publikoan gauzatu beharko da, jabetza horizontalaren eskritura baimendu eta hilabete pasa baino lehen. Dena den, Udalaren kontura izango dira notarioaren eta

Se da cuenta de la siguiente Propuesta de Acuerdo:

“Por el Pleno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 15 de febrero de 2011, se aprobó el Pliego de Cláusulas para la enajenación de parcela municipal de Share Kalea, 7 y posterior construcción de 6 viviendas tasadas municipales. Entre el condicionado de la misma, están las obligaciones del adjudicatario y entre ellas ésta: la de cesión al Ayuntamiento de local en planta baja y local-trastero sótano. La cesión debe de materializarse en escritura pública y antes de 1 mes desde la autorización de la escritura de propiedad horizontal. En todo caso

erregistroaren gastuak.

Era berean, 2011ko apirilaren 19ko Osoko Bilkuran, Udalbatzak aipatutako partzela Construcciones Aierbe S. L.-ri besterentzea onartu zuen.

Halaber, adjudikaziodunak María Valentina Montero notarioaren aurrean sinatu du dagokion eskritura, obra berria deklaratzeko eta eraikinari dagokion jabetza horizontala konfiguratzeko, 2012ko uztailaren 27an.

Beraz, honako akordioa hartzea proposatu da:

AKORDIOA:

1. Onartzea Udalari dohainik uztea honako ondasun honen titulua:

“Share kaleko 7.eko beheko solairuko lokala, 134,91 m²-ko azalera duena. Lokalaren hegoaldean dagoen terraza bat erabiltzeko eskubidea ere eman zaio, 50,74 m²-koa gutxi gorabehera.

48.370 euroko balioa eman zaio, espedientearen balorazioaren

serán a cuenta de este Ayuntamiento los gastos notariales y registrales.

Así mismo y por este Ayuntamiento y en sesión celebrada el día 19 de abril de 2011 por el Pleno se acordó enajenar la citada parcela a Construcciones Aierbe S.L.

Así mismo el adjudicatario otorga la correspondiente escritura de declaración de obra nueva y configuración de propiedad horizontal del edificio construido el 27 de julio de 2012 ante la Notario María Valentina Montero Villar.

Ante ello, se propone la adopción del siguiente

ACUERDO:

1º.-Aceptar la cesión gratuita a este Ayuntamiento por el título señalado del siguiente bien:

Local en planta baja del número siete de Share Kalea de una superficie de 134,91 m² y a la que se le asigna el uso exclusivo de una terraza en el lindero Sur del local con una superficie aproximada de 50,74 m².

Se le asigna un valor, de acuerdo con la valoración del

arabera.

2. Sotoko trastelekuari uko egitea, jabekide guztiek zaborretarako erabiltzeko eta eguzkiaren energia-metagailuentzako.

3. Onartzea azaleraren erabilera publikorako zortasuna ematea, eraikinaren ekialdean dagoen soberako terrenoarena, 12,26 m²-koa.

4. Udal honen kontura izango dira dagokion BEZa eta notarioaren eta erregistroaren gastuak.

5. Ainhoa Udalde Gorostiaga alkateari ahalmena ematea dagokion eskritura publikoa sinatzeko, Udalaren izenean eta haren ordezkari gisa, eta helburu honekin burutu beharko diren egintza guztietarako.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaurko egunean bertan egindako bileran.

Eta hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du

expediente de 48.370 euros.

2º.-Renunciar a la cesión del local-trastero sótano que ha quedado convertido en cuarto común para basuras y un espacio para los acumuladores de energía solar de la comunidad de propietarios.

3º.-Aceptar la cesión de servidumbre de uso público en superficie de la porción de terreno sobrante situada en el lindero Este de la edificación de 12,26 m².

4º.-Serán a cuenta de este Ayuntamiento el importe del I.V.A correspondiente y los gastos notariales y registrales.

5º.- Facultar a la Sra. Alcalde-Presidente D^a Ainhoa Ugalde Gorostiaga para el otorgamiento de la escritura pública correspondiente en nombre y representación de este Ayuntamiento y para todos los actos necesarios con dicha finalidad.

Así mismo por la Comisión Informativa de Cuentas Generales, Presupuesto y Administración de este Ayuntamiento se informa favorablemente el mismo, en sesión celebrada el día de hoy.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los

proposamena.

presentes aprobarlo.

Akordio hau behin betikoa
da administrazio-bidean.

Este acuerdo es definitivo
en vía administrativa.

ZAZPIGARREN GAIA

UDAL ETXEBIZITZA ALOKATZEKO ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Gai hau mahai gainean utzi da, prestatuta ez dagoelako.

ZORTZIGARREN GAIA

EUSKAL FONDOAREN 2012KO DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA.

Irurako Udala Euskal Fondoaren kide da, horregatik, aho batez erabaki da egitasmo honi diru-laguntza ematea:

Egitasmoa

Kopurua

San Jose Purula Komunitatean 3 km-ko landa-bidea egitea.

1. fasea. Fray Bartolomé de las Casas. ALTA VERAZ

1.200€

(Guatemala).

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

BEDERATZIGARREN GAIA

2 URTEKO HAURRAK ESKOLARATZEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN EGINDAKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

2012ko urriaren 9ko sarrera-datarekin eta 931 zenbakiarekin, Aitor Mendiluze Gonzalezek bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu zuen Irurako Ikastolaren izenean.

Hori dela eta, hitzarmen bat sinatuko da Irurako Ikastolarekin.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

Lehena.- Aipatutako 2012/2013 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea arauen arabera, eta Ainhoa Ugalde Gorostiaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Nortasunaren egiaztagiria

b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.

c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k).

d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

Erabaki hau erabatekoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

HAMARGARREN GAIA

UEMA MANKOMUNITATERAKO UDAL ORDEZKARIEN ORDEZKOAK IZENDATZEA, HALA BADAGOKIO.

Irurako Udala UEMA mankomunitatearen kide da, eta eskatu dute Udal honen ordezkari bakoitzari bere ordezkoa izendatzea.

Ordezko hauek izendatu dira aho batez:

-Noelia Lataburu Ortizen ordezkoa: -Ainhoa Ugalde Gorostiaga anderea.

-Ainara Mugica Iruretagoyenaren ordezkoa: -Tomas Etxeberria Sarasola jauna.

Akordio honen jakinarazpena erakunde horri igortzea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMAHIKAGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAREN KONTRATUAREN PREZIOA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO.

2009ko uztailaren 17ko 196 Alkate-dekretu bidez Ilarki enpresa etxez etxeke laguntza-zerbitzua emateko enpresa esleipenduna izan zen; hori horrela, 2009ko irailaren 1ean hasi zen zerbitzua ematen, Irurako Udalarekin lankidetzan, Udaltzako 2008ko abenduaren 16an onartutako baldintzen plegua betez.

Con fecha 1 de septiembre de 2009 empezó la prestación del servicio de ayuda domiciliaria por la empresa Ilarki con este Ayuntamiento de Irura, previa adjudicación realizada por Decreto de Alcaldía nº 196 de fecha 17-07-2009 y de acuerdo con el Pliego de Condiciones aprobados por la Corporación con fecha 16-12-2008.

Esleipenak 2 urteko iraupena zuen eta epe hori luzatzeko aukera bazegoen. 2011ko urriaren 27ko Osoko Bilkurak erabaki zuen aipatu den kontratua 2 urtez luzatzea, 2013ko irailera arte.

Teniendo una duración de 2 años prorrogable por acuerdo del Pleno de este Ayuntamiento de fecha 27-10-2011, se acordó prorrogarlo por otros dos años hasta septiembre de 2013.

Era berean, baldintza agiriaren arabera, kontratuaren prezioa berrikus daiteke Euskal Herriko KPIren arabera, INEk argitaratzen duena, eta ez du gaitzirik izandako aldaketaren %85a.

Así mismo y de acuerdo con el Pliego de Condiciones procede revisar el precio del contrato en función del IPC del País Vasco publicado por el INE y que no superará el 85% de la variación experimentada.

Azken prezioa 2011ko irailean onartu zen: 18,70 euro.

El último precio fue aprobado con fecha septiembre de 2011 y con esta: 18,70 euros.

Prezioa honela berrikusiko

La revisión del precio sería la

litzateke:

-KPIren igoera 201ko irailetik 2012ko abuztura Euskal Autonomia Erkidegoan: %2,1.

-Gehienezko aldaketa (%85): %1,785.

-Prezio berria (2012ko iraila): 19,03 €.

Prezio honen barruan egongo dira kontratuaren gastu guztiak eta zergak.

siguiente:

-Incremento del IPC desde septiembre-2011 hasta agosto -2012 en la C. A. del País Vasco: 2,1%.

-Cambio máximo (85%): 1,785%.

-Nuevo precio (septiembre - 2012): 19,03 €.

En este precio se entenderán incluidos todos los gastos del contrato e impuestos.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administraziooko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Eta hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du proposamena.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

Galdera eta eskarien atalaren aurretik gai hau eztabaidatu da:

HAMABIGARREN GAIA

PRESO GAIXOEN ESKUBIDEEN ALDEKO MOZIOA.

Mozio hau aurkeztu da:

“Giza eskubideen ikuspuntutik egoera gordina ari gara bizitzen. Azken asteetan, Josu Uribetxeberria presoaren osasun egoera atzera ezina izan dugu mahai gainean. Legea beteaz, eta berandu bada ere, baldintzapeko askatasun egoeran geratu da preso arrasatearra. Hala ere, ba dira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Hamahiru herritar hain zuzen ere. Egoera hau, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta

areagotzea ari da eragiten. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatuz.

Hamahiru preso gaixo hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: Espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu berezituari; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik; Josu Uribetxeberriaren kasuan, argudio guzti hauek dagoeneko Madrilgo Barne Ministeritzatik ere berretsi dira.

Josu Uribetxeberriaren baldintzapeko askatasunaren ondoren, beste hamahiru dira gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak eta aipatutako argudio berdinak kontutan izanik, kaleratu behar direnak. Hamalau preso eta beraien senitartekoak zigor gehigarria ari dira nozitzen. Preso hauei baldintzapeko askatasuna ukatuz, giza eskubideen oinarrizko zutabeak urratzen ari da Madrilgo arduradun politikoak.

Nazioarte zein estatu espainiarreko araudi, zuzenbidearen printzipio eta giza eskubideen aldeko aldarrikapenek, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona presoen eskubideak errespetatzeko beharra adierazten dute. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten pertsona horiek, beharrezkoa duten tratamendua eta zaintza medikua behar bezalako baldintzetan jasotzea, oinarrizko eskubidea delarik.

Hau guztia kontutan harturik, honako puntu hauek aurkezten ditugu Osoko Udal Batzarrerara, bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezten.

1.- Udal honek, preso gaixoen egoera larriaren aurrean, bere kezka adierazten du. Era berean indarrean dagoen legea beteaz eta herritarren gehiengoaren borondatearekin bat eginaz, urrats errealak emateko deia egiten dio Madrilgo gobernuari.

2.- Udal honek, nazioarteko eta Espainiako legedia oinarritzat hartuaz, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten hamahiru presoen baldintzapeko askatasuna eskatzen du. Beharrezkoa duten osasun tratamendua baldintza egokietan jaso dezaten eta egoera honek, bai beraientzat zein beren senitartekoentzat ere, zigor gehigarria suposatu ez dezan.

3.- Erabaki honen berri, Madrilgo Barne Ministerio eta Kartzela

Zaintzako Epaileari bideratzea.”

Udalbatzak mozioa onartu du, aldeko 6 botorekin (Bildu), eta abstentzio batekin (PNV).

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

HAMAHIRUGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.-

Javier Izaguirre jaunak idazkariari eskatu dio, Udalbatzaren edo Batzordearen dokumentazioa bidaltzen denean, sinadura elektronikoa edo beste edozein sistema erabiltzea, dokumentazioa jaso dela ziurtatzeko.

Dokumentazioa konprimituagoa bidaltzea ere eskatu da, askotan agiri asko izaten delako.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:30ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA